

Ordenagailu eramangarri arin eta merkeak

Bigarren ordenagailutarako, bikainak

ULTRA-ARINEI ESKER, ERRAZAGO MUGITU GAITEZKE BATETIK BESTERA, BAINA EZ DIRA OHIKO ORDENAGAILUEN ORDEZKO, OSAGARRI BAIZIK



400 euro inguru balio dute, kilo bat inguru pisatzen eta poltsa edo maletatxo batean eramateko bezain txikiak dira. Ezaugarri horiek dituzte ordenagailu ultra-arinek —ordenagailu merkeak ere esaten diete—, eta gero eta jende gehiago erakartzen dute. Zer aukera eskaintzen dituzten ikusita, esan liteke telefono adimentsuen antzekoak direla (Blackberry, iPhone...), baina haiek baino handiagoak direnez, errazagoa gertatzen da idaztea, dokumentuak lantzea, mezuak bidaltzea edo bideoak jaistea. Gainera, bateragarriak dira Internet bidezko ahots

zerbitzuekin, telefono deiak egiteko aukera ematen dute horiekin. Webcam-aren bidez, bideokonferentziak egin daitezke parkeko eserleku batetik edo autobus geltokitik.

Azken belaunaldiko telefonoen alternatiba izateko aukera asko eskaintzen dituzte ordenagailu hauek, eta horren erakusgarri, sakelako telefonoekin lan egiten duten operadoreak ere hasi dira halakoak saltzen, Interneterako sarbide eta guzti: 3G sareetara konektatzeko gailuek ematen dute sarbide hori, USB modem deitzen zaien horiek. Halako bat erosi aurretik, ordea, erabiltzaileak ongi aztertu behar du nolako datu-tarifa nahi duen, zenbat kostako zaion ezarritako kopurutik gora jaisten duen Megabyte bakoitza edo kontratuak zenbat denborarako lotzen duen. Ordenagailu hauek badute beste ezaugarri aipagarri bat ere: oso konexio-bide onak dituzte, eta horri esker, etxetik edo lantokitik kanpo gaudenean ere Internetera lotuta jarrai dezakegu wifi bidez. Aukera ona eskaintzen dute, beraz, atzerritik egindako deien konexio-tarifarik ordaindu behar ez izateko edo hoteletako geletatik Internetera ordubetez konektatzeagatik kobratzen duten tarifa gehiegizkoa saihestu ahal izateko. Baina ordenagailu hauek eskaintzen dituzten aukera guztiak ez dira lanean erabiltzeko. Bideoak ikusteko eta musika entzuteko ere balio dute, eta esan liteke tresna multimedia eramangarriak direla.

Ez dira ordenagailu nagusitzat erabiltzekoak

Ordenagailu txiki eta funtzional hauek, abantailak abantaila, ez dira ordenagailu nagusi moduan erabiltzekoak, haien

osagarri baizik. Ohiko ordenagailuek izaten dituzten aukera eta funtzio asko falta dituzte, eta horregatik dira, hain zuen, txikiak eta arinak. Memoria aski mugatua dute, disko gogorra izaten baita ordenagailuek eduki ohi duten zatirik astunenetakoa eta garestienetakoa, eta ondorioz, ultra-arin hauek ezin izaten dute gorde mahai gaineko ordenagailuek edo ohiko eramangarriek adina informazio. Asus etxekoa EeePc enblematikoak, adibidez, bost Gigabyteko memoria-gaitasuna baino ez du oinarri-oinarizko bertsioan. Badira 16 Gigabytekoak ere, eta 60koak ere bai, baina askoz garestiagoak dira horiek.

Teklatua eta pantaila ere aski txikiak dituzte, eta ez dira erosoak luzaroan erabili behar izateko. Pantaila, esaterako, 8 hazbetekoa daukate gehienek; sakelakoena baino handiagoa da, jakina (3 hazbetekoa izaten dituzte), baina ohiko eramangarriena baino txikiagoa (14 hazbete). Pantaila txiki horrekin nabigatzerakoan, korritze-botoiari gora eta behera eragiten ibili beharra dago etengabe pantaila osorik ikusi ahal izateko, eta hori nahiko deserosoa gertatzen da azkenerako. Testu labur bat idazteko egokiak dira oso, edo mezu elektronikoa bidaltzeko edo etxerako bidean trenean lan pixka bat aurreratzeko, baina ez da komeni egunero luzaz erabiltzea, eskumuturrak dezente bortxatu behar izaten direlako, eta idazketa-akatsak ere ohi baino maizago eginarazten dituelako hain teklatu txikian idatzi beharrak.

Prozesagailua 1,6 Gigahertz-etakoa izaten dute, eta hori ere muga izaten da, adibidez, grafiko konplexuekin azkar lan egiteko (bideojokoek eta horien sistema eragileek izaten dituztenekin, besteak beste).

Gehienek GNU/Linux-en distribuzio egokiak erabiltzen dituzte, eta horrek merkatu egiten du ordenagailua bera, baina ez dira bateragarriak inprimagailu eta periferiko mota askorekin.

Windows XP sistema eragilea ere izaten dute, eta Windows Vistak berak baino emaitza hobek ematen ditu, gainera, baina ez da aukerarik izaten programa nagusiak eguneratu ahal izateko, eta, hortaz, gero eta programa gutxiago jaitsi ahal izaten dira Saretik XPrako. Hori eragozpen handia da, nola ez, erabiltzaileen joera izaten baita ordenagailua aberastuz eta osatuz joatea Internetetik egiten dituzte eskaintzen bidez.

Eramangarri ultra-arin bat erosterakoan aintzat hartzekoak

Osagarri moduan erabiltzekoak direla onartuta, honako alderdi hauek hartu behar dira aintzat ordenagailu ultra-arin egoki bat erosterakoan:

- **Konexio-bideak:** gutxienez, bi USB ataka eduki behar ditu, kanpoko disko gogor bat konektatu ahal izateko (memoria urria dutelako), eta sagu bat jartzeko, ukipen bidezko gailua ez baita izaten eroso. Horrez gain, wifi bidezko konexioa ere eduki behar du, eta ahal bada, Ethernet ataka bidezkoa ere bai.
- **Pisua:** 1,3 kilogramo baino gehiago pisatzen ez badu, eroso eraman ahal izaten da batetik bestera.
- **Neurria:** eskuan eramaten diren zorro edo poltsatxoan neurrikoa izan behar du, leku guztietan ongi kabitutadain.

• **Bateriaren autonomia:** batez beste, hiru ordu irauten du bateriak ordenagailua bete-betean ari dela eta wifi sareak antzemateko gailua piztuta dela. Ez da komeni bi ordu eta erdiko autonomia baino gutxiago eduki dezan (hori behar izaten da AVE trenetan bidaia bat egiteko). Honako funtzio hauek xahutzen dute bateria gehien; wifi konexioa egiteak eta bideoa ikusteak.

• **Memoria mota:** disko gogorrak zenbat eta gaitasun gehiago eduki, orduan eta hobeto. Prezioa ere, ordea, disko gogorren araberakoa izaten da. Erabiltzaileak ikusi behar du ea zer komeni zaion: 60 Gigabyteko ordenagailu bat 150 euro gehiago ordaintzea, edo kanpoko disko gogor bat erostea diru horrekin, pisu gutxiagokoa eta 100 Gigabyte-rainoko gaitasunarekin.

• **Berez dakartzan programak:** egiaztatu behar da ordenagailuak aski programa dakartzala etxetik; honako hauek, behintzat: nabigatzaile bat, testu prozesadore bat eta multimedia erreproduktore bat. Ekoizleek, izan ere, gutxien-gutxienekoa baino ez diete jartzen funtzionatu ahal izateko. Gainerako programak Internetetik ekar daitezke, baina jakin egin behar da nondik. Garrantzitsua da birusen aurkako sistemak jaistea. Antivir programa da gomendagarriena.

• **Soinu eta bideo sarrerak:** Internet bidezko deiak eta bideokonferentziak egin nahi baditugu, ordenagailuak webcam bat eduki behar du instalatuta, eta mikrofonoarentzat sarrera bat eta bozgorailu-irteera bat ere eduki behar ditu. //